



Oihana Azkorbebeitiaren 6. postua eta talde irudi sendoa Zegama-Aizkorrin

2018ko maiatzak 27. “Gehiago ez dago eskatzerik, oso pozik gaude emaitzarekin. Oso ondo defendatu dute kamiseta, blokean joan dira, elkarri lagunduz, talde bat ikusi da gaur”.

Pozarren, Eneko Aliende Euskal Herriko Mendi Lasterketen Seleksioko hautatzailearen hitzak dira, taldekideei laguntza emateko mendi goietan ibili eta Zegamako plazara heldu berritan.

“Taldea oso aurrean sartu da, baina azpimarratzekoa da Oihana Azkorbebeitiaren 6. postua. Ikaragarria egin du”, jarraitu du Aliendek. Talde lanaz ere harro agertu da: “sekula baino maila handiagoa egon da aurten. Emaitza onak lortu dituzte hori kontuan izanda”.

Taldekako Espainiako Txapelketan parte hartuko dute euskal selekzioko kideek ekainaren 10ean. “Gaur izan dugun jarrerarekin garbi dago talde sendoa daukagula sailkapenean aurrean ibiltzeko, eta zergatik ez, gorenean egoteko”, amaitu du hautatzaileak.

OIHANA AZKORBEBEITIA

Abadiñoarra bolada bikainean iritsi da Zegama-Aizkorrira. 11 garaipen, tartean Euskal Herriko Txapel nagusia eta Espainiako bertikalen txapelketa. Eta helmugako 6.postuak kasik garaipen kutsua hartu du gaur ere Zegaman. “Oso pozik nago, oso pozik”, aitortu du irribarrez, “ikusi nire aurretik nor izan den, eta baita atzean zein utzi ditudan, oso emaitza ona da gaurkoa. Oso pozik nago seigarren postuarekin, garbi ikusi dut gaur hau zela nire postua.”.

“Iaz baino hamar minutu gehiago egin ditut, baina garbi dago aurten ez dela markak egiteko urtea izan, sargori egin du, eta heze, eta horrekin dezente gogortu da lasterketa”. Anekdotak txikia ere izan du, bost kilometro falta zirela erori eta kokotzean zauria egin du, gero, helmugan, zazpi puntu emanda konpondu dioten zauria. Hori bai, aurretik podiumetik pasa, sariak jaso, hamarka elkarrizketa eskaini, eta beste horrenbeste lagun zorionak jaso ditu. ‘Azkorbetxiki’ bogan dago!

Banan bana, euskal selekzioko beste kideek ere lortu dituzten emaitzak azpimarragarriak izan dira. Podiumak barne: Azkorbebeitia euskaldunik onena izan da, eta Hassan Aitchaou beterano mailako txapelduna. Zorionak denei!



ZEGAMA-AIZKORRI 2018

1	BONNET	RÉMI	03:53:56
2	ANGERMUND-VIK	STIAN	03:55:26
3	PRZEDWOJEWSKI	BARTLOMIEJ	03:56:18
17	IÑARRA	ANDER	04:14:06
20	GOÑI	IMANOL	04:16:07
24	AIT CHAOU	HASSAN	04:22:31
27	MARTINEZ DE ESTIBARIZ	JULEN	04:24:58
32	LETAMENDI	IBAN	04:26:50
34	MACIAS	XABIER	04:30:05
36	LARRUZZEA	ASIER	04:31:03

1	NILSSON	IDA	04:38:38
2	ORGUE VILA	LAURA	04:45:46
3	CROFT	RUTH	04:48:41
6	AZKORBEBEITIA	OIHANA	04:57:19
21	QUINCOCES	NAHIA	05:25:13
25	MUJIKA	MAYI	05:54:00





MUNDUKO KOPA

OIHANA AZKORBEBEITIA (Abadiño)
JOKIN LIZEAGA (Urnieta, Zanpatuz ME)
HASSAN AITCHAOU (Villabona, Idiazabal KE)
IMANOL GOÑI (Ea, ArrolapeMT)

MUNDUKO ULTRA TXAPELKETA

LEIRE MARTINEZ (Portugalete, Erlaitz ME)
JAVI DOMINGUEZ (Gasteiz)
JON ERDAIDE (Gorliz, Zanpatuz ME)
RAUL MACARRO (Bilbo)

ESPAINIAKO KOPA ETA TXAPELKETA

AITZIBER IBARBIA (Zizurkil, Aizkardi ME)
MAYI MUJIKA (Urretxu, Morkaiko ME)
IBAN LETAMENDI (Oñati, Aloña Mendi KE)
JULEN MARTINEZ DE ESTIBALIZ (Hermua)
ASIER ALONSO (Oñati, Zortzietakoak KE)
ANDER IÑARRA (Lezo)
XABIER MACIAS (Iruña, Sestao Alpino)
ASIER LARRUZZEA (Güeñes, Azpigorri MK)



VASA

Mendi Lasterketen Euskal Selektzioaren 2018ko EGUTEGIA

MARTXOA

8 Espainiako Kopa Trail Cara los Tajos, Alhaurin el Grande, Malaga

APIRILA

15 Espainiako Kopa Garganta de los Infiernos, Jerte, Caceres

MAIATZA

6 Espainiako Kopa Panxampla, Alfara de Carles, Tarragona

20 Espainiako Txapelketa KB KV Arredondo, Cantabria

27 Munduko Kopa Zegama-Aizkorri

EKAINA

10 Espainiako Txapelketa Mabo, Borriol, Castellon

16 Munduko Kopa Livigno SkyMarathon (Italia)

23 Munduko Kopa Olympus Marathon, Dion (Grezia)

24 Espainiako Kopa Zumaia Flysch Trail

UZTAILA

1 Munduko Kopa Buff Epic trail, Barruera, Lleida

29 Munduko Kopa Comapedrosa Skyrace (Andorra)

ABUZTUA

5 Espainiako Kopa Vistabella, Castellón

25 Munduko Kopa Matterhorn Ultraks, Zermatt (Suitza)

IRAILA

1 Espainiako Ultra Txap Valle de Tena, Panticosa

1 Munduko Kopa The Rut (Amerikako Estatu Batuak)

14 Munduko Ultra Txap Ben Nevis Ultra (Eskozia)

URRIA

13 Munduko Kopa Limone Extreme (Italia)



EMF egutegi ofiziala: Euskal Herriko Mendi Lasterketak

Euskal Mendizale Federazioko Lasterketa Batzordeak Txapelketa ofizialez batera Lasterketa Rankinga sortu du 2018 denboraldirako, orain arteko Kopa eta sailkapen konbinatu ordezkatzen dituena. Guztira 15 probek osatzen dute, eta jada bost jokatu dira, azkenak Nafarroa Xtreme eta Pagoetako mendi lasterketa. **Asier Larruzea** Güeñeskoa eta **Maite Etxezarreta** azpeitiarra dira liderrak, azken hau **Lorena Guinaldo** eibartarrarekin berdinduta puntutan, baina proba bat irabazi duenez bera da lehena sailkapenean.

EMF RANKINGA 2018

Gizonezkoak

1. Asier Larruzea (Azpigorri)	2996
2. Igor Urionabarrenetxea (Arrolape)	2970
3. Borja Santiago (Zornotza)	2884
4. Alfonso Castellanos (Zortzietako)	2810
5. Aideko Lopez de Arbina (Bertakoak)	2795

Emakumezkoak

1. Maite Etxezarreta (Sokaitz)	1996
2. Lorena Guinaldo (Trail Erraz)	1996
3. Mayi Mujika (Morkaiko)	1994
4. Saioa Arkonada (Aloña Mendi)	1990
5. Nerea Amilibia (Sestao Alpino)	1987

EMF TXAPELKETAK 2018

APIRILA

22 Linea [Aloñako Igoera](#) Oñati

UZTAILA

13-15 Ultra [Ehun Milak](#) Beasain

IRAILA

23 Bertikala [Uharte Arakil-Beriain](#) Uharte-Arakil

EMF RANKINGA 2018

URTARRILA

13 Linea [Kalamua Barinaga jaitsiera](#) Markina-Xemein

MARTXOA

24 Linea [Kolaziño Mendi Eguna](#) Bedia

APIRILA

28 Ultra [Nafarroa Xtreme](#) Zubiri

29 Linea [Pagoeta Mendi Lasterketa](#) Zarautz

EKAINA

2 Ultra [EH Mendi Erronka](#) Leitza

2 Linea [Galdames Mendi Bira](#) Galdames

9 Linea [Gabez Takarraran](#) Eskoriatza

10 Linea [Intxixu Trail](#) Oiartzun

10 Linea [Lakuntza Aralar](#) Lakuntza

17 Linea [Amurrio Trail](#) Amurrio

17 Linea [T3T](#) Tolosa

24 Linea [Triku Trail](#) Etxarri-Aranatz

IRAILA

9 Linea [Axari Trail](#) Idiazabal

15 Bertikala [Intza Ttutturre](#) Intza

URRIA

6 Bertikala [Anboto KB](#) Atxondo